

Janvier 2026



BIDARRAIKO BERRIAK

Sar Hitz

Edito

Bidarraitar agurgarriak,

Chers Bidarraitar,

Tokiko hautetsiaren hurbiltasuna biziki prezatzen dute herritarrek.

La proximité de l'élú local est reconnue et appréciée par les habitants.

Zer da gure herria? Batzuetan, handitu garen lekua. Beste batzuetan, plantatu garen gunea. Eta beste batzuetan, lan egiten dugun tokia. Herriak eta herritarrek proiektuak, esperantza eta hobekuntzak behar dituzte beren eguneroko bizian, hori guziaz Estatuko legeek zehaztu mugetan.

La commune est parfois le territoire où l'on a grandi, où l'on s'est installé et parfois travaillé.

Le territoire communal et ses habitants ont besoin de projets, d'espoir et d'améliorations dans leur vie quotidienne tout cela dans un cadre défini par les lois de l'Etat.

Herritarrek herriko zerbitzuen partetik erreaktibotasuna behar dute, eta hautetsien partetik entzunak izatea. Tokiko hautetsiak pertsona publikoak dira, eta, ondorioz, jeneralean, haien hurbiltasunagatik prezatzen dira.

Les administrés ont besoin de réactivité de la part des services municipaux et d'écoute de la part des élus.

Les élus locaux sont des personnalités publiques, en général justement appréciées de par la proximité qu'ils représentent.

Aurrekontu-murrizketaren testuinguruan Estatuak ahalak mutualizatzeraz bultzatzen gaituelarik, Bidarraiko hautetsiek herri mailako instituzioen defendatzaile suharrak izaten segitzen dugu. Euskal Hirigune Elkargoaren aldera eskumenak eskualdatzeak, haatik, proiektu handiak obratzeko ahala ematen du.

A l'heure où l'Etat nous incite à mutualiser les moyens dans un contexte de restriction budgétaire, votre équipe municipale reste un ardent défenseur de la strate communale. Le transfert de compétences au profit de la Communauté d'Agglomération Pays Basque permet cependant l'aboutissement de projets conséquents.

Aldizkari honen bidez proposatzen dizuet herriko proiektuak segitzea.

Par la lecture du présent bulletin municipal je vous laisse découvrir les projets de la commune.

Sar-hitz hau bururatuko dut, Bidarraiko herriko hautetsi eta langile guziekin batean, zuetako bakoitzari, eta baita zuen hurbilekoei ere, urte hondarreko besta onak eta urte berri ona desiratzeko, osagarri betean!

Je clôture ce paragraphe en m'associant à tous les élus et agents de la Commune de Bidarray pour souhaiter à chacun d'entre vous, ainsi qu'à vos proches, de bonnes fêtes de fin d'année et une très belle année 2026, avec une très bonne santé et beaucoup de bonheur.

Egon pixkor,
Jean Michel ANCHORDOQUY

Egon pixkor,
Jean Michel ANCHORDOQUY

Dans ce numéro :

Obrak
Commission de travaux 2 à 3

Herriko bizia
La vie de Bidarray 4 à 17

Herriko elkarteak
Les associations de Bidarray 18 à 21

Herriko elkarteak
Les associations de Bidarray 22 à 31

Commune de Bidarray
Bidarraiko Herria

Adresse / Helbidea
Mairie / Herriko etxea
1125 Plazako bidea
64780 - BIDARRAI

♦♦♦♦
☎ 05 59 37 71 51
♦♦♦♦

Messagerie :
mairie.bidarray@gmail.com

Heures d'ouverture de la mairie :
Herriko Etxearen idekitzea:

Mardi / Asteartea
Jeudi / Osteguna
Vendredi / Ostirala
08 : 30 ⇨ 12 : 30
13 : 30 ⇨ 17 : 30

Mercredi / Asteazkena
13 : 30 ⇨ 17 : 30
eta
Samedi / Larunbata
09 : 00 ⇨ 12 : 00

**Fermeture le mercredi
matin**

EGINAK IZAN DIREN OBRAK**Bide obrak:**

Baigorriko bidean bide-obrak eta sare-lurperatzeak eginak izan dira urte hontan. Frédéric Mariscoren enpresak izan da obra horien arduraduna. Diru-laguntzarik ez dugu ukan horrendako.

Herriko etxebizitzak
Postetxeko beheko apartamentua:

Eskolaren gainean den apartamendua berritua izan da urte hontan. Obra horren helburua da aparta goxo eta berri baten ukaitea. Langile guziak eskertzen ditugu.

Xedarratzea:

Herriko zenbait sektoretan xedarratze-lanak egin izan dira negu hontan. Jakinez heldu den urtean bigarren xedarratze kanpaina bat eginga izanen dela. Herriko langileek sasi garbitzeko tresnarekin herriko bideen bazterrak garbitu dituzte, aroak permititzen zuelarik eta langile-taldeak libre zirelarik.

Suteen kontrako babesa:

Suteen kontrako babesa bat antolatua izan da Tunberrako eta Dominixeneko bideen kurutzean.

Ganixeneko zubia:

IHIDOY enpresak Ganixeneko zubiaren barandak arraberritu ditu. Sekuritatea gehitzea zen obra horren helburua. Orain auzo hori basbestua da.

TRAVAUX REALISES**Voirie:**

Des travaux de voirie ont été réalisés sur fonds propres sur la voie Baigorriko bidea avec rénovation de l'enrobé et enfouissement des réseaux secs. Les travaux ont été réalisés par l'entreprise Frédéric Marisco.

Logements:
Appartement au-dessus de l'école:

L'appartement a été rénové de manière à améliorer son classement DPE (Diagnostic de Performance énergétique).

Nous remercions les entreprises Mendibil Mathieu- Iturbide Michel- Olhagaray Jean Léon et Couderc Corinne- Hirukia et SARL Bidondo Battitt.

Espaces verts:

Des travaux d'élagage ont été réalisés cet hiver sur certains secteurs de la commune tout comme le passage de l'épareuse sur le bord de la voirie communale, en tenant compte des contraintes du temps et des disponibilités.

Défense-incendie:

Afin de permettre une défense-incendie dans les normes, une borne incendie a été installée dans le croisement entre Tumberrekako bidea et Dominixeneko bidea. Ce quartier en pleine urbanisation est désormais protégé.

Pont de Ganixenea:

L'entreprise M IHIDOY a été chargée de rénover les garde-corps du Pont dans le but de sécurisation et d'embellissement de cet ouvrage.



EGINAK IZANEN DIREN OBRAK**TRAVAUX A VENIR****Aire Zabal landetxea:**

Kondatua izan den bezala azken aldizkarian, Herrien Etxearekin harremanetan gira Aire Zabal landetxea arraberritzeko. Lehen planoak eginak izan dira dire arkitektoekin eta orain diru-laguntzen bila gira: Estatuaren partez, Akitania Berria eta Departamenduko diru-laguntzak. Itzal-gune bat eraikia izanen da 2026ean. Komunak antolatuak izanen dira akanpamendu gunean jendeari aisetasun gehiago ukaiteko.

Suteen kontrako babesak:

Erramundeia eta Noblianean diren suteen kontrako babesak berriak izanen dira. Hori eginga izanen da Arnateko ura-sare obreen denboraldian Herri Elkargoak eginik.

Berdegunak:

Iaz bezala, otsailan Jean-Claude Ospital enpresak zuhaitzak eta adarrak xedarratuko ditubide bazter batzuetan.

Lurak pribatuak:

Oroitarazten dugu jabeen ardura dela beren lursailetatik erori zuhaitzen eta adarren moztea etakentzea. Gomendatzen dugu prebentzioz arbolak xedarratzea askotan.

Petanka gunea:

Negu hontan petanka gune bat antolatua izanen da haurren parkaren ondoan. Haurren parkea hobetua izanen da

Bide-Obrek:

Departamenduko diru-laguntzarik ez ukanez, bide-obrarik ez da izanen 2026ean. Hala ere, Akitania-Berria eskualdearen partez diru-laguntzak ukaiten ahal ditugu artzain-bidexkak berritzeko. Herriko Ohorioko bidexka berriak eta zabaldia izanen da 2026ean. Obra horiek Akitania-Berriak arduratzen duen FEADER diru-laguntza ukanen dugu.

Gîte Aire Zabal:

Comme annoncé sur le précédent bulletin municipal, une étude a été menée au sujet de la rénovation du gîte Aire Zabal. L'avant projet sommaire étant terminé nous engageons l'avant-projet définitif avec les architectes de la Maison des Communes. La recherche de subventions est en cours: Dotations de l'Etat- Fonds régionaux- Fonds Feader et fonds départementaux.

En 2026, une ombrière et des sanitaires seront installés sur l'aire de bivouac afin de permettre un meilleur confort aux usagers.

Défense-incendie:

Nous allons profiter de la rénovation du réseau d'eau potable (quartier Arnate) par la CAPB pour rénover les bornes incendie vers Noblia et Erramundeia. Les équipements sont anciens.

Elagage:

Comme l'an dernier une autre campagne d'élague d'arbres et de branches sera réalisée en février sur certaines routes communales par l'entreprise Jean-Claude Ospital.

Domaine privé:

Nous vous rappelons qu'il est de la responsabilité des propriétaires de couper et débarrasser les arbres et branches tombés depuis leurs parcelles sur la voie publique. En prévention, nous vous conseillons d'élague vos arbres le plus régulièrement possible.

Terrain de pétanque:

Un terrain de pétanque sera aménagé pour ce printemps. Il sera situé à côté de l'aire de jeux pour enfants pour lequel nous envisageons aussi des améliorations.

Voirie

Au vu du gel des aides départementales, la Commune de Bidarray n'envisage pas de réaliser de travaux de voirie en 2026. Cependant, des fonds FEADER existent et proposent des subventionnements pour la refecton de chemins pastoraux. Des travaux de reprofilage, élargissement et coulage béton sont prévus sur la route communale de Ohioro. Ces travaux seront en partie financés par la Région Nouvelle-Aquitaine.

ONDDOENEA

Bidarraiko Herriko Etxea eta Onddo kolektiboa 2018tik ari dira hirugarren leku bat sortzeko lanean. Infernuko Zubiko hotel zaharrean plantatuko litzateke, han diren elkarteetarik hurbil:

- Kanaldu, 10 langile dituen.
- Zinemaren sektoreko profesionalen elkarteak (Zukugailua, sektoreko 34 langile biltzen dituen; Oro Studio, 10 teknikari enplegatzen dituen).

Onddoenea sorkuntzari eta postprodukzioari eskainia izanen den hirugarren leku bat izanen da, ikus-entzunezko aktibitatearako beharrezkoak diren ekipamendu teknikoekin, zeinak mutualizatuko baitira: muntaia-gelak, soinu eta irudien gela, proiektzio-aretoa.

Onddoenearen helburuak honako hauek dira:

- *Biztanleen eta zinemako eta ikus-entzunezko profesionalen arteko harremanak sortzea.
- *Gure lurraldearen gizarte- eta ekonomia-lotura indartzea.
- *Tokiko eragileen elkartzea bultzatzea.
- *Tresnak, lokalak eta ahalak mutualizatzea.
- *Trebetasunak transmititzea.
- *Nafarroarekin belaunaldien arteko eta mugaz gaindiko dinamika bat sortzea.
- *Euskara sustatzea.

Herriko Etxearentzat proiektu hori handiegia eta garestiegia zela oharturik, Bidarraiko Herriko Etxearen eta Euskal Hirigune Elkargoaren arteko obragintza partekatu baten gaia izanen da proiektu egituratzaile hori. Bi eragile horiek, beraz, erabilgarri izanen diren 600 m²-ko lokalak partekatuko dituzte, hirugarren leku bat eta ikus-entzunezko- eta sormen-industrien profesionalei eskaini gun bat plantatzeko.

Proiektuaren kostu osoa zergarik gabeko 2,45 milioi eurokoa da.

Horren % 47 Herriko Etxeak ordainduko du eta % 53 Euskal Hirigune Elkargoak.



La Commune de Bidarray et le collectif Onddo travaillent depuis 2018 sur la création d'un tiers-lieu à implanter dans l'ancien hôtel du Pont d'Enfer, à proximité des entités déjà présentes:

- Kanaldu qui emploie 10 salariés.
- Les associations des professionnels du secteur du cinéma (Zukugailua qui regroupe 34 travailleurs du secteur et Oro Studio qui emploie 10 techniciens).

Onddoenea sera un tiers-lieu dédié à la création et à la post-production avec des équipements techniques nécessaires à l'activité audiovisuelle et qui seront mutualisés: salles de montages, son & images, salle de projection.

Les objectifs d'Onddoenea sont les suivants:

- *Créer des ponts entre les habitants et les professionnels du cinéma et de l'audiovisuel.
- *Renforcer le lien social et économique de notre territoire.
- *Favoriser le regroupement d'acteurs locaux.
- *Mutualiser les outils, locaux et moyens.
- *Transmettre des savoirs-faire.
- *Créer une dynamique intergénérationnelle et transfrontalière avec la Navarre.
- *Promouvoir la langue basque.

Au vue de l'ampleur et du coût très important estimé pour la commune, ce projet devrait bénéficier d'une co-maîtrise d'ouvrage entre la Commune de Bidarray et la Communauté d'Agglomération Pays Basque. Ces deux acteurs vont donc se départager les 600 m² de locaux disponibles pour y implanter un tiers-lieu et un espace dédié aux professionnels de l'audiovisuel et industries créatives.

Le coût total du projet est de 2,45 millions d'euros HT dont 47% seront supportés par la Commune et 53% par la CAPB. Voici une photo souvenir d'Onddoenea.

Le désamiantage a commencé courant décembre et la démolition est prévue à partir de mi-janvier pour une reconstruction rappelant la bâtisse initiale.

PLUi

Hego Baxenabarreko elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Plana

2025. urtean zehar, elkargo azpiko THPa apailatzeko prozedura iritzi eta onarpen bilketa urratsean sartu da.

2025eko ekainaren 21eko deliberoaren bidez, Elkargo Kontseiluak elkargo azpiko THPa-ren proiektua finkatu du, proiektua eraikitzeko lanak bururatuz.

Ondotik, elkargo azpiko THPa hunkituriko 44 herrien iritzia aurkeztua izan zaie, baita pertsona juridiko partaideek osatzen dituzten erakunde eta estatuaren zenbait zerbitzuren iritzia ere.

Delibero bidez, 44 herri guzietan proiektua onartu dutenez, dokumentua herritar guzietan aurkeztua izan zaie, haien iritzia ere biltzeko asmoz, 2025eko urriaren 27a eta 2025eko abenduaren 1aren arteko ikerketa publikoaren harira.

Ikerketaren denboran, 3 pertsonak osatzen duten ikerketa batzordeak 285 ohar bildu ditu, batzordekideek 9 zaintza-zerbitzu segurtatu dituztelarik honako herrietan: Aldude, Bidarra, Iholdi, Larzabale, Lekunberri, Baigorri eta Donazaharre.

Batzordearen txostena eta emaitzak aurkeztean, Hego Baxenabarreko elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Planaren proiektua onartua izanen da Elkargo Kontseiluaren deliberoaren bidez, agian moldatu izan ondotik pertsona juridiko partaideen iritzia eta ikerketa batzordearen txostena eta emaitzak kontuan hartzeko gisan.

Bazterretako eremu mugatuaren proiektuak ere onartuak izanen dira Elkargo Kontseiluaren deliberoaren bidez, agian moldatuak izan ondotik ikerketa batzordearen txostena kontuan hartzeko gisan, Frantziako Eraikinen Arkitektoa erakundeak ados agertu ondotik. Azkenik, proiektu horiek sortuak izanen dira eskualdeko prefetaren erabakien bidez.

Herrietako mapak indargabetuak izanen dira elkargo azpiko THPa onartuko duen Elkargo Kontseiluan.

Xedetzat harturiko helburua da elkargo azpiko THPa onartzea 2026ko otsaileko Elkargo Kontseiluan.

Plan Local d'Urbanisme Infracommunautaire Sud-Basse-Navarre

Durant l'année 2025, la procédure d'élaboration du PLUi est entrée dans la phase de consultation et d'approbation.

Le conseil communautaire a par délibération du 21 juin 2025 arrêté le projet de PLUi achevant ainsi les travaux de construction du projet.

Le PLUi a ensuite été soumis pour validation pendant 3 mois, aux 44 communes du PLUi ainsi qu'aux institutions et divers services de l'Etat qui composent les personnes publiques associées.

Les 44 communes ayant toutes validé par délibération le projet, le document a été présenté et soumis à l'ensemble de la population à l'occasion de l'enquête publique qui s'est tenue entre le 27 octobre 2025 et le 1^{er} décembre 2025.

Durant l'enquête, 285 observations ont été enregistrées par la commission d'enquête composée de 3 personnes qui a tenu 9 permanences dans les communes suivantes : Aldudes, Bidarray, Iholdy, Larceveau, Lecumberry, St-Etienne-de-Baigorry et Saint-Jean-Le-Vieux.

A la remise du rapport et des conclusions de la commission, le projet de PLUi Sud Basse Navarre, éventuellement modifié pour tenir compte des avis des personnes publiques associées, du rapport et conclusions de la commission d'enquête, sera approuvé par délibération du Conseil communautaire. Les projets de Périmètre délimité des abords, éventuellement modifiés pour tenir compte du rapport de la commission d'enquête, seront également approuvés par délibération du Conseil Communautaire suite à l'accord de l'Architecte des Bâtiments de France, puis seront créés par arrêtés du Préfet de région.

Les cartes communales seront abrogées lors du Conseil communautaire qui approuvera le PLUi.



L'objectif affiché vise une approbation du PLUi lors du conseil communautaire du mois de février 2026.

Elections municipales

2026ko MARTXOAREN 15eko ETA 22ko HERRIKO HAUTESKUNDEAK

2025eko maiatzaren 21eko legeak aldatu ditu 1.000 biztanletik beherako herrietako hauteskunde-sistema. Hemendik aitzina, 1.000 biztanletik gorako herrietan erabiltzen den sistema berria aplikatuko da. Hemen arau nagusiak:

-Bi itzuliko zerrenda bidezko hauteskunde-sistema proportzionala bat izanen da.

-Gure herri mailan, zerrenda bat osoa hartua izanen da gutienez 13 eta gehienez 15 hautagai badi-tu.

-Emazte eta gizonen arteko berdintasuna errespetatu behar da: emazte / gizona parekotasuna errespetatuz.

Hautesleek ezin dute izenik kendu edo marratu, ez eta hautagaien ordena aldatu ere bozka-paperan. Zerrenda oso bat bozkatzen da. Izenak kenduak dituzten bozka-paperak baliogabeak bilakatzen dira.

Lehen itzulian, adierazitako bozken gehiengo absolutua lortzen duen zerrendak kopuru proportzioaren arabera ukan ditu. Gainerako kopurua ere lortutako bozken arabera banatuko dira. Hori da propozionaltasunaren agindua.

Gehiengo absolutua lortzen ez bada, bigarren itzuli bat egiten da.

Zein sistema erabiliko da axuanta hautatzeko?

Auzapeza herriko kontseiluak hautatzen du.

Legeak axuanta hauteskundeetarako ere zerrenda bidezko eta parekotasuna errespetatzen duen sistema ezartzen du. Horretarako, derri-gorrezkoa da hautagai-zerrenda parekide bat aurkeztea. Hautagaien ordena ez da nahitaez herriko kontseilurako zerrendaren berdina izan behar.

Berdintasun-betebeharra ez zaio aplikatzen alkateta eta lehen axuanta bikoteari. Horrela, auzapeza emazte bat baldin bada, axuanta hautagaien zerrendan lehen tokian emazte bat izaiten ahal da, gero gizon bat, eta abar.

*Hautesle-zerrendetan izena emateko azken eguna: otsailaren 2a.

ELECTIONS MUNICIPALES des 15 et 22 MARS 2026:

La loi du 21 mai 2025 est venue modifier le mode de scrutin pour les communes de moins de 1000 habitants. Il est désormais le même que les communes de plus de 1000 habitants. Voici les règles:

-Scrutin de liste proportionnel à deux tours.

-Pour notre strate communale, une liste est réputée complète si elle comprend au minimum 13 candidats et au maximum 15.

-Respect de la parité: alternance femmes-hommes obligatoire.

-Les électeurs ne peuvent ni rayer de nom ni changer l'ordre des candidats sur le bulletin de vote. Ils votent pour une liste plurinomiale. Les bulletins rayés sont nuls.

Au premier tour, la liste qui obtient la majorité absolue des suffrages exprimés reçoit un nombre de sièges répartis à la proportionnelle. Les autres sièges sont répartis suivant les suffrages obtenus.

Si la majorité absolue n'est pas atteinte, un second tour est organisé.

Quel mode de scrutin pour l'élection des adjoints au maire ?

Le maire est élu par le conseil municipal.

La loi étend le scrutin de liste proportionnel et paritaire à l'élection des adjoints. Pour cette élection, il est désormais obligatoire de présenter une liste paritaire de candidats. L'ordre de présentation des candidats n'est pas obligatoirement le même que pour la liste des candidats au conseil municipal. L'obligation de parité ne s'applique pas au couple maire / premier adjoint. Ainsi, dans le cas où la maire est une femme, on peut avoir une liste de candidats adjoints avec une femme en première position, puis un homme, etc.

*Date limite d'inscriptions sur les listes électorales le 2 février 2026.

Source: Service-public

Webgunea

Bidarraiko webgunea berritua izan da 2025 hastapenean. Lege araubideak errespetatzen ditu webgune horrek. 4500€ko gastu bat izan da Bidarraiko herriarendako bainan 2200€ko diru-laguntza bat ukan dugu Herri Elkargoaren partez.

Site internet

Le site internet a connu une refonte totale début 2025. il répond désormais aux normes d'accessibilité en vigueur. Cette refonte a coûté 4500€ et la Communauté d'Agglomération Pays Basque nous a accompagné financièrement à hauteur de 2200€.

[Aller au contenu](#) | [Contact](#) | [Accessibilité : totalement conforme](#) | ☐ [Contraste renforcé](#)



[Ma mairie](#)

[Mon quotidien](#)

[À voir, à faire](#)

[Mes démarches](#)

Rechercher sur le site



ONGI ETORRI

MAIRIE DE BIDARRAY

La Mairie de Bidarray vous présente son nouveau site internet, qui respecte les normes relatives à l'accessibilité.

PanneauPocket

Berri guziak ezagutzeko, PanneauPocket aplikazionea deskargatzen ahal duzue (urririk). Deskargatzen ahal duzue Appstore eta Google Play-en.



Pour suivre l'actualité de Bidarray, pensez à télécharger l'application (gratuite) PanneauPocket. Disponible sur AppleStore et GooglePlay.

Biztanle Kondaketa

Kondaketa militarra

16 urte baino gehiago dituzu ? Herriko etxerat biztanle kondaketa egin behar duzu (hori galdetua da etsaminentzat eta azterketeentzat, bide kodarentzat eta gidaltzeko permisarentzat adibidez).

Recensement

Recensement militaire


Jeunes de 16 ans accomplis, pensez à venir vous recenser en mairie (indispensable pour les examens, code de la route et permis de conduire).

Bientôt 16 ans ?


PENSEZ AU RECENSEMENT !

2025ko Hirigintzako baimenak**Autorisations d'Urbanisme**

Permis de construire - Année 2025



Déclarations Préalables- Année 2025

**Fiscalité**

Fiskalite serbitzuak bi zerga mota antolatzen eta kalkulatzeko dute: Etxe hutseko zerga eta bigarren etxebizitzako zerga. Impots.gouv plataforman 'Gérer mes biens immobiliers' funtzionaltasuna eta deklarazioetaz arduratu behar dira jabe guziek.

Zerga horiek 2023an deliberatuak izan ziren. Jakin behar da mailakatua direla. Hori erran nahi du %50koa ordainarazi behar dela 2024 eta %100koa 2025tik goiti.

L'assujettissement des locaux d'habitation à la taxe d'habitation des résidences secondaires, à la taxe d'habitation des logements vacants (THLV) et à la taxe sur les logements vacants (TLV) est administré par les services fiscaux à partir des déclarations d'occupation annuelles des propriétaires effectuées au travers de Gérer Mes Biens Immobiliers (GMBI).

Ces taxes ont été voté en 2023 pour une application progressive. Cela signifie que 50% du montant de la taxe a été appliqué en 2024 pour atteindre 100% de la taxe à partir de 2025.



Aire Zabal aterbea

2025ko denboraldia untsa iragan zen. Ibiltari, mendizale eta beilari anitz baliatu dute Aire Zabal landetxea. Orotarat, 3006 gauraldi aterpean eta 1853 kanpamendu kontatu ziren.

Pantxika Oxoby eta Camille Errecart dira langileak eta ibiltzaile guziak errezebitzen dituzte plazer handi batekin.

Gîte Communal Aire Zabal

L'année 2025 s'est bien déroulée avec de nombreux randonneurs qui ont profité du gîte et de la zone de bivouac (3006 nuitées au gîte et 1853 au bivouac).

Pantxika Oxoby et Camille Errecart assurent le fonctionnement du gîte et accueillent les marcheurs, pèlerins et estivants avec le sourire et beaucoup de professionnalisme.

Eliza

Eliza eta bere atariari buruz ikerketa bat egiten ari da eta bereziki haien antolaketari buruz. Kanpoko hornikuntza, aparkalekua eta helbarrituen errazbidea hobetzea dira proiektu horren helburuak. Isabelle Joly arkitektoa, Premier Plan geometroa eta Alde empresak kudeatuko dute ikerketa hori. 16 140€ko gastua izanen da eta Akitani-Berriaren partez 2690€ko diru-laguntza bat ukan dugu.

Eglise

Cette année une étude actuellement en cours a été engagée sur des travaux extérieurs de l'église et de son parvis. L'objectif étant d'améliorer l'aspect extérieur, le stationnement et l'accessibilité pour les personnes handicapées. Le cabinet d'architectes Isabelle Joly, le géomètre Premier plan et cabinet ALDE ont été mandatés pour répondre à cette étude. Le coût total est de 16 140€TTC avec 2690€ de subventions accordées par la DRAC.

Lotizamendua Olhaberria Lotissement

Aitzineko herri aldizkarian jakinarazi bezala, Olhaberria etxe multzoko azken etxe lekua sei partetan zatitua izan zen. Etxe leku bakoitzean elkarri datxizkion etxe bana eraikitzea da proiektua; orotara, beraz, elkarri datxizkion hiru etxe.

Lehenbiziko aldiz etxea erosten dutenentzat da, eta bizitegi nagusi gisa okupatuko dute, etxe multzoaren baldintza-agiriaren eta indarrean den araudiaren arabera. 2025ean, Muscarditz-Henche eta Hardoy-Mentaberry familiak bi etxe leku erosi zituzten, eraikitzeko baimena erdietsi zuten eta obrak hasi zituzten.

Etxe lekuak eskuragarri dira. Argibideak galdegin Herriko Etxean.

Comme annoncé sur le précédent bulletin municipal, le dernier lot du lotissement Olhaberria avait été divisé en 6 lots. Le projet étant de construire une maison mitoyenne sur chaque lot, soit 3 maisons mitoyennes.

Il est destiné à des primo-accédants qui l'occuperont en résidence principale selon le cahier des charges et le règlement en vigueur du lotissement.

En 2025, les foyers Muscarditz-Henche et Hardoy-Mentaberry ont acquis deux lots, obtenu leur permis de construire et les travaux ont commencé.

Des lots sont disponibles à la vente.

Eskola

2025ko buruilaz geroztik, 34 ikasle badira Bidarraiko eskolan. Haurten Carole Bidegain da zuzendaria eta frantsesako erakaslea. Christelle Lascaray euskarako erakaslea da.

Ikasturte honetako urtarrilaren 1etik apirilaren 30era hiru urte beteko dituzten haurrak eskolara jiten ahalko dira Eguberriko oporretatik edo otsaileko oporretatik landa. Baimen berezi horiek irakasle-taldearen onarpenaren menpe dira.

ESKOLA

Ecole

Depuis la rentrée de septembre 2025, 34 élèves sont scolarisés à l'école de Bidarray, tous en bilingue. Cette année, Carole Bidegain assure le poste de direction et enseignante de français. Christelle Lascaray assure le poste d'enseignant en basque.

Les enfants faisant 3 ans entre le 1^{er} janvier et le 30 avril de l'année scolaire en cours, pourront être scolarisés au retour des vacances de Noël ou au retour des vacances de février. Ces dérogations seront soumises à l'accord de l'équipe pédagogique.

Mugikortasuna**Vie pratique**

Bidarraiko Posta: Astelehenetik ostiralera, 10etatik eguerdirat.

La Poste de Bidarray: Ouverture du lundi au vendredi de 10h à midi.



Baigorri - France Services etxea: Astelehenetik ostiralera, 9tik eguerdirat eta 1akterditik laurakterdirat.



Maison France Services de Baigorri: Ouverture du lundi au vendredi de 9h à midi et de 13h30 à 16h30.

Baigorri - Birzitegi gunea: Astearte eta larunbatetan, 9tik eguerdira eta 2eik 6ra.

Déchèterie de Baigorri: Ouverture les mardis et samedis de 9h à midi et de 14h à 18h.

Mutuelle communale

Mutami mutualarekin kontratatu dugu partaidetza bat herriko osasun-asurantzari buruz. Bidarrain bizi diren pertsona guztiak Herriko osasun-asurantza hautatzen ahal dute. Bidarrain lan egiten dutenak ere bai.

Kontratu horren esker **%30ko beherapena** ukaiten ahal da kontratu klasiko batekin konparatuz.

Bidarrain bizi diren guzientzat (langileak, erretretan direnak, lanbide liberalak, langabezia, etab) idekia da posibilitate hori.

Ekintza horren esker, erosteko-ahalmena defenditzen du Bidarraiko herriak beherapenak proposatuz osasun-asurantzetan.

Xehetasun gehiago ukaiteko Gaëlle deitu 09 77 425 525 zenbakian edo mailez: gaelle.oumedjkane@mutami.fr

La Commune de Bidarray a signé un contrat de partenariat avec le mutualiste MUTAMI.

Les mutuelles de village permettent aux administrés qui résident ou travaillent sur la commune de bénéficier d'une couverture à des **tarifs groupés allant jusqu'à -30%**.

La mutuelle s'adresse aux habitants ou travailleurs dans la communes, actifs, retraités, sans-emploi, professions libérales etc. Les tarifs préférentiels sont disponibles sur demande auprès de la mairie.

Par cette action, la Commune permet aux Bidarraitar de bénéficier d'une couverture santé avec des conditions tarifaires avantageuses. Pour toute information complémentaire, contacter la conseillère Gaëlle au 09 77 425 525 ou par mail: gaelle.oumedjkane@mutami.fr



Logement

Zer ote da bizilekuaren eta Energiaren Etxea?

Bizilekuaren eta Energiaren Etxea erreferentziazko leihatila da bizitegiari eta bizilekuari buruzko zure galdeei ihardesteko; Ipar Euskal Herriko biztanle guziei irekia da. Helburua du molde neutralean eta pertsonalizatuan laguntzea zure hobekuntza-obra (energia aurrezteko obra, autonomia galtzeari eta zahartzeari egokitzeko obra, edo zure etxea segurtatzeko obra) ahal bezain emaitza onekoak izateko eta zure beharrei ahal bezain ongi ihardesteko, tokiko enpresei probetxu eginez.

-Teknika eta finantza aholkuak

Izan zaitez jabe, egoiliar-ahokatzaile edo jabe-kide-sindikatu, Bizilekuaren eta Energiaren Etxeko aditu taldeak lagunduko zaitu zure erreberritze obra apailatzen, dirulaguntzak atzematen eta profesional egokiak hautatzen.

-Arkitektura-aholkuak

Bizilekuaren eta Energiaren Etxeak Baionako bere egoitzan Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen Kontseilua (AHIK 64) hartzen du. Arkitekto aholkulariak zure eraikuntza edo erreberritze proiektuetan lagunduko zaitu. Proiektua hasi aitzin, arkitekturari eta paisaiari buruz aholkuak ematen ahalko dizkizu.

-Aholku juridikoak

Bizilekuaren eta Energiaren Etxea EADE 64ren partaide da, eta zure zerbitzura dago bizilekuari doazkion galde guziei buruzko aholku pertsonalizatuak emateko lege, finantza edo zerga alorrean.

-Bizitegi sozialaren galdea;

Bizilekuaren eta Energiaren Etxea leihatila-erregistratzailea da, eta horrela, bizitegi soziala galdatzeko zure dosierra aurkeztu edota eguneratu dezakezu. Nola jarri gurekin harremanetan? Laguntza galde bat egiteko, aitzinetik bete ezazu zure profilari (jabe egoiliarra, jabe alokatzailea, jabe-kide) doakion lineako inprimakia. Zure galdea Bizilekuaren eta Energiaren Etxeko aholkulari aditu bati emanen zaio eta zurekin harremanetan jarriko da.

Hirigune Elkargoaren lurraldean bizitegiari edo bizilekuari buruzko argitasun beharra edo galderak ukanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezke telefonoz 05 59 44 77 80 zenbakira deituz edo e-postaz maison.habitat@communaute-paysbasque.fr helbidera idatziz. Gure eskualdean Garaziko France Services Etxearekin harremanetan sartu hitzordu bat hartuz (bi garren asteazkenean hilabetero, 9tik eguerditerdirat eta arratsaldeko 1terditik 3akterdirat.

La maison de l'habitat

Véritable guichet de référence pour répondre à vos questions sur l'habitat et le logement, la Maison de l'Habitat et de l'Énergie est ouverte à tous les habitants du Pays Basque. Elle a pour objectif de vous accompagner de façon neutre et personnalisée pour que vos travaux d'amélioration (travaux d'économies d'énergie, adaptation à la perte d'autonomie et au vieillissement, mise en sécurité de votre logement) soient les plus performants possible et répondent au mieux à vos besoins, tout en bénéficiant aux entreprises locales.

-Conseils techniques et financiers: Que vous soyez propriétaire, locataire ou syndicat de copropriété, l'équipe d'experts de la Maison de l'Habitat et de l'Énergie vous aide à élaborer votre projet de rénovation, trouver des aides financières et choisir les professionnels compétents.

-Conseil architectural: La Maison de l'Habitat et de l'Énergie accueille dans ses locaux à Bayonne le Conseil Architecture Urbanisme Environnement (CAUE 64). L'architecte conseil vous guidera dans vos projets de construction ou de rénovation. Il pourra vous apporter des recommandations sur les aspects architecturaux et paysagers en amont de votre projet.

-Conseil juridique: L'ADIL 64, partenaire de la Maison de l'Habitat et de l'Énergie, est à votre disposition pour vous offrir un conseil personnalisé dans le domaine juridique, financier ou fiscal sur toutes les questions relatives à l'habitat.

-Demande de logement social: La Maison de l'Habitat et de l'Énergie est guichet enregistreur et vous permet ainsi de déposer et/ou mettre à jour votre dossier de demande de logement social.

Demandes d'accompagnement

Pour toute demande d'accompagnement, vous devez au préalable renseigner votre profil (propriétaire occupant, propriétaire bailleur, copropriété).

Votre demande sera transmise à un conseiller expert de la Maison de l'Habitat et de l'Énergie qui reprendra contact avec vous pour convenir d'un rendez-vous personnalisé dans un de nos lieux d'accueil.

Dans notre secteur, la Maison Frances Services se Garazi reçoit sur rdv le 2e mercredi du mois (de 9h à 12h30 et de 13h30 à 15h30).

1, rue des Bergers—64220 Saint Jean Pied de Port.



DONS VERSES AUX ASSOCIATIONS

<i>Tiers</i>	<i>Total TTC</i>
ASSOCIATION ZAHARRER SEGI	500.00
ASSOCIATION BAZTANDARRAK	500.00
ASSOCIATION DES PARENTS D'ELEVES	1 000.00
ASSOCIATION JO PILOTA	500.00
ASSOCIATION LIBURUTEGIA	500.00
ACCA BIDARRAITARRA	500.00
KANALDUDEKO LAGUNAK	100.00
ASSOCIATION OTXALDETARRAK	500.00
GAZTAINA	300.00
Zukugailua	100.00
AEK GAU ESKOLAK	400.00
ARRAPITZ	100.00
ASS RESTOS DU COEUR	100.00
ASS. GARAZIKUS	100.00
ASS. UDA LEKU	200.00
Asso Etorbidea	100.00
Asso Ezti Etxea	50.00
Asso Plazara	100.00
ASSOCIATION GOIZEKO IZARRA	100.00
ASSOCIATION HAND BALL IRISSARRY	100.00
ASSOCIATION HARRERA	100.00
ASSOCIATION HEMEN	200.00
ASSOCIATION LURRAMA	100.00
ASSOCIATION SUSTENGU	300.00
ASSOCIATION US NAFARROA	500.00
Baigurako libertimendua ass	100.00
Croix rouge française	50.00
EUSKAL RAID ASSOCIATION	100.00
EUSKALTZAINDIA ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE	100.00
Groupeement des professionnels de santé de Baigorrry	100.00
HANDISPORT PAYS BASQUE	50.00
HERRIA	400.00
IRULEGIKO IRRATIA	400.00
LURZAINDIA	300.00

DONS VERSES AUX ASSOCIATIONS

NAFAR GAZTE	100.00
SECOURS CATHOLIQUE	100.00
TELETHON	100.00
US NAFARROA Hand	500.00
USEP UNION SPORTIVE GARAZI	100.00
XAPATA ASSOCIATION	100.00
ADELFA	100.00
Adepape 64	100.00
AFSEP ASSO FRANCAISE SCLEROSES EN PLAQUE	50.00
ASSOCIATION ARRANOAK	100.00
Association Erle Beltza	50.00
Association Iparralai	200.00
TOTAL	10 250.00

Réalisations budgétaires 2025

Section d'Investissement



■ Dépenses ■ Recettes

Section de fonctionnement



■ Dépenses ■ Recettes

Les réalisations budgétaires comprennent les résultats antérieurs (excédent de fonctionnement et déficit d'investissement) arrêtés à la date du 24/12/2025.

La section de fonctionnement énumère les dépenses courantes de la collectivité (énergies- salaires- indemnités d'élus- taxes

foncières, etc). Les recettes comprennent la fiscalité locale, revenu des domaines, etc. L'excédent de la section de fonctionnement permet le financement des dépenses d'investissement.

La section d'investissement comprends les dépenses de voirie, les travaux. Les recettes incluent les subventions d'équipement.

Atxiki tailerrak**Ateliers Atxiki**

Atxiki zerbitzua, etxean bizi diren 60 urtez goragoko pertsonetara zabalduta da.

2025 garren urte hontan, autonomiaren mantentzeko egitateak proposatuak izan dira Bidarrin urtarritetik goiti. Tailerren helburu nagusietariko bat, egin ahala ontsa xahartzea da gaitasun guziak mantenduz.

Multxo ederra bildu izan da urtean zehar. Memoria eta orekaren lantzeaz gain, elgarren ikusteko, berrien hartzeko eta irri kutsiaren egiteko manera bada tailerretan.

Tailerrak Ostegun guziz izanen dira arratsaldeko 2terditik 4rat Arrume gelan. Urtarri-laren 8an berriz hasiko dira. Psikomotrizitate-oreka eta memoria tailerrak proposatuak izanen dira aldizkatuz.

Tailerretan parte hartzeko edo/ta xehetasun gehiagorentzat, Aline Etcheverry Atxikiko koordinatzailearekin harremanetan jar zaitezke, zenbaki hontara deituz **07.85.46.07.92**.

Le service « Atxiki » propose aux personnes de plus de 60 ans résidant sur les 30 communes du territoire de Garazi-Baigorri.

Un groupe d'une dizaine de personnes s'est réuni durant l'année 2025, pour partager ensemble deux types d'activités :

Atelier mémoire : sollicitation et maintien des capacités cognitives

Atelier motricité / gym douce - prévention des chutes : maintien des capacités physiques.

Ces ateliers ont pour objectifs de maintenir voire améliorer les capacités physiques et cognitives tout en engendrant du plaisir dans la pratique en favorisant les interactions sociales.

Ces ateliers sont gratuits et mis en place au plus près des bénéficiaires, à Bidarray.

Les ateliers se dérouleront tous les jeudis de 14h30 à 16h dans la salle Arrume à compter du 8 Janvier 2025.

Adindunen bazkaria**Repas des aînés**

Adinetako bazkaria abenduaren 13an, egina izan da Noblia jatetxean.

Giro beroa eta atsegina izan da. Bizilagun giroan ziren eta elkartasunean egun eder hori partekatzeko, denek oso estimatzen dutenak. Arretaz prestatutako menu baten inguruan, lagunek arratsalde goxo bat pasatu dute, solasaldietan, irriz eta partekatutako oroitzapenez beterik. Herriko kontseiluak heldu direnak eskertzen ditu. Hitzordu hori, ezinbestekoa bihurtu dena, berriro ere erakusten du gure adinekoek gure herrian duten garrantzia eta lekua.

Le traditionnel repas des Aînés a eu lieu le samedi 13 décembre au restaurant Noblia.

L'ambiance était chaleureuse et conviviale.

80 habitants étaient présents pour partager ce moment de rencontre et d'échanges, apprécié de toutes et tous. Autour d'un menu soigneusement préparé, les convives ont pu profiter d'un après-midi animé, ponctué de discussions, de sourires et de souvenirs partagés. L'équipe municipale tient à remercier la présence de chacun. Ce rendez-vous, devenu incontournable, illustre une nouvelle fois l'importance de la place de nos aînés au sein de notre commune.



Centre de ressources territorial– Arditeya Cambo

Gure establimendu-proiektuaren parte gisa, arta moldeen dibertsifikazioa eta lurraldean zabaltzea helburu izanik, gerontologiaren arloko harrera eta baliabideen zerbitzu berri bat garatzen ari gara.

HELBURUAK

Etxean bizi diren adineko jendeentzat:

- zahartzeak alderdi guzietan dituen ondorioak arintzea, norberaren gaitasunak ahal bezainbat begiratzuz;
- osagarria begiratzeta: norbanako bakoitzaren segurtasuna, erosotasuna eta ongizatea;
- egoera orokorra mantentzea eta gaitasun sentzitibo-motorrak eta funtzio kognitiboak (oroimena, orientazioa) estimulatzea;
- konplikazioak eta arrisku fisikoak, intelektualak eta psikologikoak saihestea;
- pertsonari bere egoera bizitzaren laguntzea eta inguruko jendeekilako harremanetan laguntzea: espos laguna, familia, laguntzaile profesionalak eta abar;
- gizarte-harremanak erraztea, giza dimentsioko talde-dinamika baten baitan;
- laguntza teknikoei eta ingurumenara egokitzei buruzko aholku-beharrei ihardestea.

Adineko pertsonaren laguntzailearentzat:

- pertsona lagunduari eguneroko laguntza ematea erraztea;
- atsedenaldi bat eskaintzea, isolamendua haustea, sostengatzea eta informatzea;
- bere gaitasunak mantentzea eta bere osagarria begiratzeta.

GURE PARTAIDEA

Eskualdeko Osasun Programa obratzearen barnean, Akitaniako Eskualdeko Osasun Agentziak (ARS delakoak) gure Baliabide Zentroaren finantzaketan parte hartu nahi izan du, autonomia fisikoa, kognitiboa eta soziala galtzeko arriskua prebenitzeko politika baten bideratzea aisatzeko. Horregatik, eta gure elkartearen engaiamenduari esker, plantan ezarri ekintzak urririkakoak dira erabiltzaileentzat, hots, adineko jendeentzat eta laguntzaileentzat.

cressources.contact.arditeya@gmail.com

Dans le cadre du projet d'établissement, ayant pour enjeu la diversification des modes de prise en charge et l'ouverture sur le territoire, nous développons un nouveau service d'accueil et de ressources en matière de gérontologie.

LES OBJECTIFS

Pour les personnes âgées résidant à domicile :

- pallier les effets du vieillissement dans toutes ses composantes, en préservant au maximum les capacités individuelles ;
- veiller à la santé : sécurité, confort et bien être propre à chaque individu ;
- entretenir l'état général et stimuler les capacités sensitivo-motrices, les fonctions cognitives (mémoire, orientation...) ;
- prévenir les complications et risques physiques, intellectuels et psychologiques ;
- accompagner la personne dans le vécu de sa situation et des relations avec son entourage : conjoint, famille, aidants professionnels...;
- favoriser les relations sociales dans une dynamique de groupe à dimension humaine ;
- répondre aux besoins de conseils relatifs aux aides techniques et adaptations de l'environnement.

Pour l'aidant de la personne âgée :

- faciliter l'accompagnement au quotidien auprès de la personne aidée ;
 - offrir un moment de répit, rompre l'isolement, le soutenir et l'informer ;
 - entretenir ses capacités et veiller à sa santé.
- NOTRE PARTENAIRE Dans le cadre de la mise en œuvre du Programme Régional de Santé, l'Agence Régionale de Santé d'Aquitaine (ARS) a souhaité participer au financement de notre Centre de ressources afin de favoriser l'émergence d'une politique de prévention du risque de perte d'autonomie physique, cognitive et sociale. De ce fait, et grâce à l'engagement de notre association, les actions mises en place sont gratuites pour les usagers : personnes âgées et aidants.

Contact de l'association Arditeya:

cressources.contact.arditeya@gmail.com

Plan Communal de Sauvegarde

Herri Babeseko Plana E egunean segurtasun zibileko gertakari nagusi bati buru egiteko tresna operatiboa da. Klima-arriskuekin zerikusia duen gertakari nagusi hura izan daiteke, adibidez, ekaitz bat, uholde bat, lurrikara bat eta abar.

Auzapezaren agintepean, herri mailako krisia kudeatzeko zinezko plan bat da, krisi bat gertatuz gero nork zer, noiz eta nola egin behar duen definitzen duena.

Haren helburua da herriko eragile guziek landutako eta partekatutako antolakuntza erreaktibo eta eraginkorra plantan ezartzea, herritarrak sortu arriskuetaarik ahal bezain ongi babesteko.

Herri Babeseko Planak herritarren prebentziozko informazioan eta babesean eragiten duten herriaren eskumeneko dokumentu guziak biltzen ditu. Ezagutzen diren arriskuen arabera, Herri Babeseko Planak honako hauek egiteko ahala ematen du:

- pertsonak zaindu eta babesteko berehalako neurriak zehaztea,
- alerta eta segurtasun-manuak hedatzeko behar den antolamendua finkatzea,
- eskura dauden baliabideak zerrendatzea, herritarrak laguntzeko neurrien aplikazioa definitzea.

Gaur egun, Herriko Etxea Herri Babeseko Plana eguneratzen ari da. Primaderan bururatuko da. Eta hamar urteko bali izanen da.

Le plan communal de sauvegarde (PCS) est l'outil opérationnel qui permet de faire face le jour J à un événement majeur de sécurité civile. Cet événement majeur lié aux risques climatiques peut-être par exemple une tempête, une inondation, un séisme... Sous l'autorité du maire, il s'agit d'un véritable plan de gestion de crise à l'échelle communale qui définit qui fait quoi, quand et comment en cas de crise.

Son objectif est de mettre en place une organisation réactive et efficace, élaborée et partagée par tous les acteurs de la commune, pour protéger au mieux la population des risques encourus.

Le plan communal de sauvegarde regroupe l'ensemble des documents de compétence communale contribuant à l'information préventive et à la protection de la population. En fonction des risques connus, le PCS permet de :

- déterminer les mesures immédiates de sauvegarde et de protection des personnes,
- fixer l'organisation nécessaires à la diffusion de l'alerte et des consignes de sécurité,
- recenser les moyens disponibles, définir la mise en œuvre des mesures d'accompagnement et de soutien à la population.

Le Plan communal de Sauvegarde est actuellement en cours de mise à jour par la mairie. Il sera terminé au printemps et sera valide pour 10 ans.



Besta Berri

Bazuen zortzi urte ez zela Bestaberririk ospatu gure herrian (azkena 2016an iragan zen). 2025eko ekainaren 29an, Otaba kari, herritar gazte talde berri batek osoki bere gain hartu du ospakizunaren antolaketa, haur multxoia ere bazela juntaturik. Ekainan jantzi guzien erakusketa bat izan zen Arrume gelan. Bestaberriko jantzi batzuk andeatuak baitziren, antolatutako izan dira kermesaren diru iturriak finantzaturik. Haatik badira 2016az geroztik etxetan diren jantzi batzuk oraindik itzuliak izan ez direnak. Ez da berantegi!

Elizkizun kartsu eta alegera izan da, François-Régis Jasnot apezak kudeaturik. Musikan, Alain Petoteguy ainhiztarra, akordeoian, Hazparneko musikari lagun batzuekin. Elizkizunetik landa, jendea saldoan bildu da trinquettean eskaini den aperitifarentzat. Eta bezituak ziren gazteek bazkari alai batekin segitu dute Barberaenea jatetxean.

Eskerrik beroenak egun hortaz arduratu diren guziera.

